



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA LANETARAKO SALNEURRIEN DATU-BASEARI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 374. zk. -SUST-2019

Aurkibidea:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK	1
1. Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatzea	2
2. Eragile ekonomikoei kontsultatzea	4
3. IHOBerekin egindako bilera	7
II. PREZIOEN TRESNAK	7
1. Alderdi orokorrak	7
2. Sektore Publikoko Kontratuen Legea	11
III. EUSKO JAURLARITZAREN ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA LANETARAKO SALNEURRIEN DATU-BASEA	11
IV. ONDORIOAK	12

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2020ko maiatzaren 27an, eta txosten hau eman du Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-baseari buruz.

I. EGITATEZKO AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) eragile ekonomikoei Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-baseari buruz egindako zenbait kontsulta jaso zituen¹.

¹ <http://www.euskadieuprecios.com/>



3. Horren ondorioz, LEA/AVC-k, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3. artikuluan zehaztutako eginkizuna betez (merkatuetako lehia sustatzea), ondorengo izapideak egin zituen.

1. Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatzea

4. 2019ko azaroaren 12an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari informazioa eskatu zion Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-baseari buruz (Euskadiprecios). Zehazki, honako informazio hau eskatu zion:

- A) Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-basea ezartzeko arrazoia.
- b) Zein kontzepturen prezioak egin diren publiko datu-basean.
- c) Zein metodologiaren bidez esleitu zaion prezioa kontzeptu bakoitzari.
- d) Zein maiztasunekin eguneratzen diren prezioak.

5. 2019ko abenduaren 4an, eskatutako informazioa bidali zuen sail horrek. Laburbilduz, hauxe adierazi zuen:

6. Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-basea ezartzeko arrazoia:

1989. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza alorrean eskumenak dituen organoak, aldizka, eraikuntza eta hirigintzako obra-materialen eta -unitateen prezioen datu-basea argitaratzen du. Ordutik aurrera, prezioen datu-basea proiektuak idazteko erreferentzia-esparru bihurtu da, eta oso erabilgarria izan da eraikuntza sektorean lan egiten duten profesionalentzat.

Tresna horren helburua, egokitzat hartzen diren balioak oinarri hartuz, datuen sistematizazioa eskaintzea da, EAEn ohikoenak diren eraikuntza-sistemak azpimarratuz, material eta teknika espezifiko propioak kontuan hartuz, eta lurralde historiko bakoitzaren eskulana bereiziz, prezioak errealitatera are gehiago egokitu daitezten.

7. Zein kontzepturen prezioak egin diren publiko datu-basean:

Eraikuntzako kode teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 6. artikuluan xedatzen denaren arabera, proiektuan eraikina deskribatuko da eta exekuzio-obrak behar den xehetasunekin definituko dira, horiek egin bitartean, proiektua zehaztasunez baloratu eta interpretatu ahal izateko.

Proiektuek honako hauek hartuko dituzte barnean: **gutxi gorabeherako aurrekontu bat** (proiektatutako obraren exekuzio-materialaren gutxi gorabeherako balorazioa, kapituluaren arabera banatuta) eta **aurrekontu xehatu bat** (kapituluaren arabera



banatutako prezioen koadroa, kapituluaren arabera banatutako laburpena, exekuzioaren eta kontratatzen amaierako balioa adieraziz, kalitate kontrolaren aurrekontua eta Segurtasun eta Osasun Azterketaren aurrekontua).

Prezioen Datu-baseak hauek hartzen ditu barnean: **oinarrizko prezioak** (makinak, eskulana, produktuak eta materialak) eta eraikinaren, urbanizazioaren, birgaikuntzaren, segurtasunaren eta kalitate-kontrolaren **obra-unitateak**.

Prezioak hiru talde handi hauetan banatuta daude: (i) prezio sinpleak edo unitarioak, (ii) prezio osagarriak eta (iii) bereizitako prezioak. Gainera, kapituluaren arabera antolatuta daude, eta identifikatzeko kode alfanumerikoak dituzte, eta, horrez gain, indize bikoitza dute: bata, oinarriaren sortze-irizpidearen arabera, eta bestea, obra-fase eta ofizio tradizionalen arabera bereizitakoa.

Obra-unitatea: aurrekontua kalkulatzeko, proiektua banakatu daitekeen ataletako bakoitza. Beraz, lehenik eta behin, alderdi bakoitzaren kostua zehazten da (bereizitako prezioak); ondoren, obra-unitate bakoitza errepikatzen den aldi kopurua adierazten da (neurketa), eta bukatzeko, balorazioa egiten da, bereizitako prezioen emaitzen eta neurketen arteko biderkadura gehituz.

Ondorioz, prezioen datu-baseko informazioa kontzeptu-zuhaitz baten eta informazio-eremu baten arabera egituratuta dago. Lehenengoan, lau adar hauek daude: arloa, kapitulua, azpikapitulua eta familia. Bigarrenean, kontzeptu bakoitzari lotutako informazioa dago (testua, bereizketa, baldintzen plegua eta irudiak).

8. Zein metodologiaren bidez esleitu zaion prezioa kontzeptu bakoitzari:

Datu-basearen prezioak «ereduzko» eraikuntza bati buruzkoak dira, hau da: kokapenak ez du sarbide arazorik, hornidurak daude, EAEn ohikoak diren batez besteko dimentsioak eta eraikuntza-ezaugarriak ditu.

Datu-baseko kontzeptuak zehazteko, irizpide hauek erabiltzen dira:

Oinarrizko prezioak: EAEko hainbat hornitzailek eta fabrikatzailek emandako tarifetan oinarrituz emandakoak. Ez ziren kontuan izan ez BEZa, ez deskontu posibleak.

Eskulana: Eskulanaren kostuak eraikuntzarako eta metalerako (probintzietako hitzarmenak) eta lorezaintzarako (estatu mailako hitzarmena) hitzarmenen arabera finkatzen dira, hain zuzen ere, datu-basea sortzen den unean indarrean dauden hitzarmen horiek kontuan hartuz.

Bitarteko osagarriak: Makinen erabilera-kostuak kalkulatzeko, kontzeptu hauek hatzen dira kontuan: eskuratze-balioa, hondar-balioa, amortizazio-aldia, urtean zehar lan egindako orduak, erregaien eta olioaren prezioa eta kontsumoa, urteko biltegiaritze-kostuak, ekipamenduen mantentze-kostuak eta makinistaren eskulan-kostuak.

Kostu zuzen osagarriak: Obra-exekuzioan behar diren bitarteko osagarrien kostua da, eta barnean hartzen ditu horien higadura eta amortizazioa. Bitarteko horiek honela kuantifikatzen dira datu-basean: obra-unitatean erabilitako materialen eta eskulanaren kostuak ehunetik zenbat diren, obra-unitatearen arabera banakatuta. Balioa % 1 eta % 5 artekoa izaten da, unitate bakoitzaren inguruabarren arabera.



Obra-unitateak: Prezioak zehazteko kuantifikazio-irizpidea hau da: horietako bakoitzari berariaz eragiten dioten kostuak gehitzea. Ondorioz, prezioak kalkulatzeko kostutzat honako hauek hartzen dira:

- a) Materialen edo oinarritzko unitateen tarifa-prezioak, salmenta-prezioak edo aholkatutako prezioak, obran erabilitako materialenak, eta exekuzioan behar den kopuruan.
- b) Eskulana, dagozkion gizarte aseguru eta kargekin, obra-exekuzioan izandako zuzeneko esku-hartze beharrezkoaren arabera, hori gabe obra egitea ezinezkoa bada.
- c) Aldi zehatz batean obra-unitatean behar izan den makineria espezifikoko bati zuzenean dagokion erabilera-kostua.
- d) Unitateko obretarako beharrezkoak diren bitarteko osagarriak.

9. Zein maiztasunekin eguneratzen diren prezioak:

Prezioen datu-baseak eguneraketa hauek izan ditu 1989az geroztik:

- 1994an, datu-basearen bertsio berri bat argitaratu zen, eta bertan, eraikuntza eta hirigintza lanetarako prezioak eraberritu ziren.
- 1997an, prezioen ehunekoak berrikusi ziren, eta bakarrik gida labur bat argitaratu zen.
- 2001ean, datu-basea Eraikuntzaren Antolamendu Legea eta Hormigoiaren Jarraibidera egokitu zen, eta 2003an euskarazko bertsioa argitaratu zen.
- 2008an, datu-basea eguneratu zen, edukia 2006an onetsitako Eraikuntzaren Kode Teknikora egokitzeko.
- 2011n, datu-basearen edizio berri bat egin zen, bertsio parametrikotan. Bertsio hori webgune honetan dago: www.euskadieuprecios.com. Ohiko formatuaz gain, bertsio horrek prezioak ikusteko eta kudeatzeko sistema bat du, hala, aurrekontu txikiak egin daitezke, eta hori erabilgarria izan daiteke tokiko administrazioentzat, aurrekontuak kudeatzeko programa informatiko konplexurik ez baitute behar izaten.
- 2015ean, birgaikuntzari, eta obren segurtasunari eta osasunari buruzko datu gehiago sartu ziren, baita eraikuntzaren kalitate-kontrolari buruzko datu gehiago ere.

2. Eragile ekonomikoei kontsultatzea

10. 2020ko urtarrilaren 22an, hainbat enpresari eta enpresa-elkarteri galdetegi bat bidali zitzaizen prezioen datu-baseari buruz:

- a) Erabiltzen duzue edo noizbait erabili duzue Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-basea? (www.euskadieuprecios.com)
- b) Erantzuna baiezkoa bada, prezioen datu-basea erabilgarria dela uste duzue? Azaldu zergatik.
- c) Datu-basean jasotako prezioak errealitatearekin bat datozela uste duzue? Erantzuna ezezkoa bada, adierazi zergatik.
- d) Datu-baseari buruz egin nahi duzun edozein iruzkin.



11. Eragile ekonomikoek honako hau adierazi zuten, laburbilduz:

- **ERAGILE 1:** Ez dute sekula prezioen datu-basea erabili, eta, beraz, ezin dute horren erabilgarritasunari buruzko iritzirik eman.

- **ERAGILE 2:** Datu-basea erabiltzen dute, eta uste dute erreferentzia dela proiektuen aurrekontuak egiteko eta kontraten prezioak alderatzeko.

Prezioei dagokienez, uste dute konparaketak egiteko erabilgarriak direla. Kasu batzuetan, merkatuko prezioak gainditzen dituzte, eta beste batzuetan, horien azpitik daude. Orokorrean, **erabilgarriak** dira. Konparaketa baliozkoena aurrekontu orokorrak konparatzen dituena da. Kontu-sailak modu indibidualean konparatuta, akatsak sor daitezke. Beraiek ez dute obrarik adjudikatzen, bakarrik agindu egiten dituzte, eta, beraz, erreferentziak behar dituztenez, datu-basea interesgarria da beraientzat.

Beraien ustez, garrantzitsua litzateke datu-basea eguneratuta mantentzea, eta eskulanaren prezioak bat etortzea hainbat lurraldetako eraikuntza-hitzarmenekin, eta, gainera, gustatuko litzaieke azterketa eta proiektu teknikoak egiteari buruzko kontu-sailak ere sartzea.

- **ERAGILE 3:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 4:** Datu-basea erabiltzen dute eta erabilgarria dela uste dute, laguntza jasotzeko eta erreferentziak aurkitzeko, baina, uste dute informazioa falta dela, eta informazioa gehitzea egokitzat jotzen dute. Prezioak **egokiak** direla uste dute.

- **ERAGILE 5:** Datu-basea erabiltzen dute eta erabilgarria dela uste dute, baina, uste dute ez dela oso fidagarria; izan ere, kontu-sail askoren amaierako prezioa beste kontzeptu askoren mende dago (obraren distantzia, zenbateko guztia eta deskontuak).

Prezioei dagokienez, **uste dute batzuk merkatura egokitzen direla eta beste batzuk zaharkituta daudela**, bereziki, etengabe aldatzen direnak (asfaltoa, altzairua, eta abar), baina, hala ere, erreferentziako prezioak behar dituztenen lana erraztea eskertzen dute.

- **ERAGILE 6:** Ez dute datu-basea erabiltzen, eta, beraz, ez dute daturik.

- **ERAGILE 7:** Ez zekiten datu-baserik zegoenik ere, baina aztertu egin dute eta interesgarria dela uste dute, betiere, prezioak errealitatearekin bat etorri gero; izan ere, **uste dute, datu-baseko prezioak prezio errealean azpitik daudela**.

- **ERAGILE 8:** Uste dute lan bat baloratzeko, lagungarria izan daitekeela beste erreferentzia bat izatea. Azkenaldian erabili dituzten prezioak berrikusiz (hondakinen kudeaketa), uste dute datu-baseko prezioak merkatuko prezioekin bat datozela.

- **ERAGILE 9:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 10:** Datu-basea erabiltzen dute. Beraien ustez, oinarritzkoa da erreferentziako datu-base bat izatea, alderdi biek erabili ahal izateko prezioei edo



etekinei buruz desadostasunak daudenean (bereziki sustatzailea administrazioa denean eta proiektuak bereizitako preziorik ez duenean), eta datu-base hori erabakiak hartzeko erabiltzea, zehazki, bat ez datozen edo aldatu diren prezioak defendatzeko. Askotariko administrazio-pleguetan adierazi da datu-base hau erabiltzen dutela desadostasunak daudenean.

Hala ere, uste dute, datu-basea guztiz zaharkitua dagoela, ez bakarrik prezioen erreferentzietan, baizik eta oinarritzko kontzeptuetan. Horregatik, erreferentziako datu-base bat izateko beharra berretsi dute, eguneratua eta merkatuko prezioetan, makinerian eta zerbitzuetan oinarritua. Horrenbestez, proposatu zuten datu-basea baliogabetzea eta beste bat sortzea, akordio handi batekin, eta, bereziki, datu-basea aldizka berrikustearen derrigortasuna erabakitzea. Era berean, interesgarritzat jotzen dute kontzeptu berriak txertatzea, Bim liburutegian bezala, hedapen eta erabilgarritasun handiagoak lortzeko.

- **ERAGILE 11:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 12:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 13:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 14:** Datu-basea erabiltzen dute eta lanerako tresna oso interesgarria eta erabilgarria dela uste dute, obra-proiektuak EAEko etekinetara eta prezioetara egokituta idazteko, hain zuzen ere. Prezioak **egokiak** direla uste dute, eta datu-basean obra-unitate berriak gehitzea interesgarritzat jotzen dute.

- **ERAGILE 15:** Ez dute datu-basea erabili.

- **ERAGILE 16:** Datu-basea noizbait erabili dute, aldizka. Uste dute erabilgarritasun mugatua duela; izan ere, datu-baseko prezioak ez datoz bat merkatuko prezioekin. Beraien iritziz, prezioak eguneratzeko lan handia egin beharko litzateke.

- **ERAGILE 17:** Datu-basea erabiltzen dute, baina zaharkituta dagoela uste dute, eta, horrez gain, adierazi dute prezioak ez datozela bat merkatuko prezioekin. Datu-basea egotea oinarritzotzat jotzen dute, baina, beraien ustez, sektorearekin batera erabaki beharko lirateke prezioak, eta aldizka datu-basea eguneratu beharko litzateke.

Horregatik, datu-base hori ezabatu eta berri bat egin beharko litzatekeela uste dute, eta berria sortzeko prozesuan parte hartuko luketela adierazi dute.

- **ERAGILE 18:** Esan zuten teknikariek datu-basea erabiltzen dutela obra-proiektuetan. Askotan ezagunak ez diren obra-unitateei aurre egin behar zaienez, datu-baseak lan hori egin ahal izatea errazten die.

Hala ere, higiezinaren eraikuntza- eta sustapen-sektoreko enpresek datu-base propioak dituzte, kostuak ezberdinak baitira enpresa batetik bestera. Kostu ekonomiko propioak ez duten obra-unitateak egin behar dituztenean, azpikontratatistekin eta hornitzaileekin batera lan egiten dute, kostu horren datu errealak zeintzuk diren jakiteko.



Behin proiektu teknikoa prezioen koadroarekin eginda (prezioen oinarri hori edo beste bat erabiltzen dutela), lizitazio publikoa egiten da, eta une horretan, enpresa parte-hartzaileek proposamenak aurkezten dituzte, beti behetik jota, beraien artean lehia bizian arituz; izan ere, kontratua adjudikatzeko irizpide erabakigarrietako bat prezioa izaten da, hau da, preziorik baxuena.

Esan dute, askotan, prezioen oinarri horiek eguneratu gabe egoten direla, eta adierazi dute, baita ere, kontuan hartu behar dela egungo Kontratuen Legeak lizitazio publikoetan merkatuko prezioak kontuan hartzeko betebeharra ezartzen diela kontratazio-organoei. Horregatik, lizitazio publikoko prozesuek zuzen funtzionatzeko, zeinetan enpresak aske lehiatzen baitira eskaintzan beti behetik joz, beharrezkoa da lizitatu beharreko proiektuak merkatuko prezioekin sortzea, eta horretarako, eguneratutako datu-baseak erabiltzea.

Beraien iritziz, merkatuko prezio egokiak erabiltzen dituen lizitazio publiko batek enpresen arteko lehia osasuntsua sortuko luke. Alderantziz, gutxietsitako prezioak dituen lizitazio publiko batek osasuntsua ez den lehia sortzen du, biziraupen hutsekoa, eta askotan, enpresa adjudikaziodunak eta bere mendeko enpresek behea jotzen dute. Horrez gain, enpresa serioenentzat eta profesionalenentzat lehia desleialeko egoerak sortzen dira laneko eta prebentzioko betebeharrak betetzeari dagokionez; izan ere, askotan, beraien exekuzio-kostuek lizitazioaren oinarri-aurrekontuak gainditzen dituzte.

3. IHOBerekin egindako bilera

- 12.** 2020ko apirilaren 23an, bilera bat egin genuen AAArekin, IHOBeko Arlo Teknikoko ordezkariarekin, eta esan zuen beraiak sortzen dutela hondakinen kudeaketari buruzko datu-baseko kapituluak. Horretarako, hondakinen kudeatzaileekin harremanetan jartzen dira eta tarifei buruz galdetzen diete. Hori guztia, bi urtean behin egiten dute, eta 2020an eguneratuko dute berriz informazio hori.

IHOBEEn prezioen datu-base sendoa sortzeko lan egiten dute, hondakinak joan behar diren lekura joan daitezen, eta, beraz, beraien iritziz, datu-baseak existitzen jarraitu behar du, gutxienez, hondakinen kudeaketako kapituluak.

II. PREZIOEN TRESNAK

1. Alderdi orokorrak

- 13. Prezioen behatokiak** merkatuen joerak aztertzeko tresnak dira, prezioei gardentasun gehiago emateko. Hala ere, arrisku bat dago, hain zuzen ere, behatoki horiek lehiakideen arteko jokaerak bateratzeko instrumentu bilakatzea. Horregatik,



behatokiak egotea justifikatuta egon behar da, kontsumitzaileei onurak eskaintzeko bada².

14. Bestalde, enpresa-elkarteek **prezioei buruzko aholkuak** ematea erabaki edo aholku kolektiboa da, Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 3ko 15/2005 Legearen (LDL) 1. artikuluan debekatutako jokaera gisa aipatzen dena³.

Jada existitzen ez den Lehia Defendatzeko Estatuko Auzitegiak jokaera horiek modu honetan definitu zituen⁴:

«Eragile ekonomikoz osatutako erakundeek hartutako erabakiak dira, lotesleak (*aginduak*) edo orientagarriak (*gomendioak*), kideen arteko akordiotzat hartzen direnak; hori guztia, Legeak erabiltzen duen fikzioa da, kideek, egiletasun formalaren ardura erakunde kolektiboari eskualdatzeko prozeduraren bitartez, dagozkien kolusiozko erantzukizunak saihestea ekiditeko».

Aipatu den moduan, horrelako jokaerak enpresa, federazio edo elkargo profesionalen elkarteetan edo taldeetan agertu ohi dira, eta ez du garrantzirik korporazioaren erabakimena horretarako eskumenak dituen organoaren esku utzi den, estatutuekin bat eginez jokatu den edo legean erabaki hori hartzeko aurreikusitako prozedurari jarraitu zaion.

15. Elkargo profesionali dagokienez, **orientazio baremoak** zehatz-mehatz debekatuta daude Elkargo Profesionalari buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeari abenduaren 22ko 25/2009 Legearen bitartez egindako erreformaren bidez (25/2009 Legea, hainbat lege aldatzen dituena, zerbitzu-jardueretarako sarbide libreari eta jarduera horiek gauzatzeari buruzko Legea egokitzeko)⁵:

14. artikulua Ordainsariei buruzko gomendioen gaineko debekua.

Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari-profesionalari buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik.

Ondorioz, elkargo profesionalak baremoak ezartzea prezio gomendatu kolektibotzat hartzen da, eta beraz, lehia defendatzen duten agintaritzek jazartzen duten jarduera da⁶.

² Andaluziako Junta. Prezioen eta Merkatuen Behatokia.

<https://www.juntadeandalucia.es/agriculturaypesca/observatorio/servlet/FrontController?ec=default>

³ 2014ko apirilaren 7ko LEA/AVC Ebazpena (1/2012. espedientea, Eizie-Itzulpen tarifak)

[https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/Resoluci%C3%B3n%20expediente%20DEFINITIVO\(EUSKARAZ\).pdf](https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/Resoluci%C3%B3n%20expediente%20DEFINITIVO(EUSKARAZ).pdf)

⁴ LDAREN 2000. urteko apirilaren 7ko Ebazpena (. 472/99. espedientea, Valentziako Farmazeutikoen Elkargoa)

https://www.cnmc.es/sites/default/files/56584_7.pdf

⁵ <https://www.boe.es/eli/es/l/2009/12/22/25/con>

⁶ 2017ko apirilaren 11ko LEA/AVC Ebazpena (146-ZEH-2015 esp., Bizkaiko Psikologia Elkargoa)



16. Bestalde, zenbait elkargo profesionalek, besteak beste, arkitektoek, eginkizunen artean dute tasatutako proiektu batzuetan derrigorrean oniritzia eman beharra. Batzuetan, elkargo profesional horiek prezioen datu-baseak oker erabili izan dituzte proiektu horiek ikus-onetsi dituztenean. Nahiz eta oniritziaren aurkako agindurik ez egon, datu-base horietako prezioak adierazitakoak baino baxuagoak zirenean, oniritzian horri buruzko jakinarazpena egiten zen⁷. Beste batzuetan, profesionalei jaitsieraren salbuespena justifikatzeko eskatzen zitzairen, LBNren ebazpenean (gaur egun LMBN) aztertzen den moduan, 2008ko otsailaren 26ko Huelvako Arkitektoen Elkargoaren 629/07 espedientea, Auzitegi Nazionalak berretsi zuena. Batzordeak honako hau xedatu zuen:

«Egiaztatutzat jotzea Lehia Defendatzearen 16/1989 Legearen (LDL) 1. artikulua debekaturiko lehia-murrizketa dakarren jarduna dagoela, “Era guztietako obren burutzapen materialaren gutxi gorabeherako aurrekontuen kalkulu errazerako metodoa” egitean datzana. Hori elkargoko kideen artean zabaltzea eta “salbuespena” justifikatu beharra obra-aurrekontua PEM aplikatzearen ondoriozko emaitza baino baxuagoa denean, prezioen gomendio kolektiboa da, lehia murriztea eragiten duena, eta horren erantzuletzat Huelvako Arkitektoen Elkargo Ofiziala jotzen da».

Kalkulu-metodologia sortzeko, kontuan hartzen ziren Eraikuntzaren Kodifikazio eta Prezio Bankuaren Fundazioaren argitalpenak eta bestelako elkargo profesionalek argitaratutako prezioen koadroak.

17. Bestalde, lehiakideen artean informazio sentikorra trukatzea arau-haustea da, LDLren 1. artikuluan jasotakoaren arabera; izan ere, datuak trukatzuz, lehiakortasunaren aurkako beste jardun batzuk egitea ahalbidetu daiteke; adibidez, prezioak edo bestelako merkataritza-baldintzak hitzartzea. Horregatik, enpresen informazio estrategiakoa trukatzea ez dator bat enpresa-logikarekin, eta merkatuaren lehia-funtzionamendu zuzenaren oinarrizko arauen aurkakoa da⁸.

Horri dagokionez, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 101. artikuluan jasotakoak lankidetzat horizontaleko akordioetan ezartzeari buruz Europako

https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/adjuntos/146_resolucion_COLEGIO_PSICOLOGIA_BIZKAIA_web_eu.pdf

⁷ Ikus LDAren 467/99 espedientea, Madrilgo Arkitektoak 3 eta AZren Rec. 936/2000 Epaia.

⁸ 2011ko martxoaren 2ko LBNren Ebazpena (S/0086/08. espedientea. Ile-apaindegi profesionala)

https://www.cnmec.es/sites/default/files/33561_20.pdf

2015eko uztailaren 23ko LMBNren Ebazpena (S/0482/13. espedientea, auto-fabrikatzaileak)

https://www.cnmec.es/sites/default/files/685749_21.pdf



Batzordeak emandako zuzentarauen jakinarazpenean⁹ jasota dagoenez, merkatuaren gardentasuna modu artifizialean handituz, informazio estrategikoa trukatzek erraztu egin dezake enpresen lehia-jokaeraren koordinazioa (hau da, bat etortzea), eta, ondorioz, lehiari ondorio mugatzaileak sor daitezke (65. paragrafoa).

Era berean, jakinarazpenean jasota dago zenbait informazio-truke, beren ezaugarriengatik, orokorrean, karteltzat hartu behar direla.

59. Bestalde, lehiakideen artean informazioa trukatzeko akordio bat, hitzartutako jardun bat edo enpresa-elkarte baten erabaki bat izan daiteke, prezioak edo zenbatekoak finkatzeko, bereziki. Orokorrean, informazio-truke horiek **kartel** izango dira, eta, ondorioz, isuna ezarriko zaie. Informazio-trukeak erraztu egin dezake, baita ere, kartel bat ezarri ahal izatea, enpresek kontrolpean badute parte-hartzaileek baldintzak betetzea. Informazio-truke horiek kartelen berezko partetzat hartuko dira.

(...)

74. Hala, lehiakideen artean etorkizunean aurreikusitako prezioei edo zenbatekoei buruzko datu individualizatuak trukatuak lehiaren mugapentzat hartu beharko lirateke, 101. artikuluko 1. apartatuaren arabera. Gainera, lehiakideek modu pribatuan informazioa trukatuak baldin badute etorkizuneko prezioei edo zenbatekoei dagokienez, horiek, normalean, **karteltzat** joko dira, eta kartelei dagozkien isunak jarriko zaizkie; izan ere, haien xedea prezioak edo zenbatekoak zehaztea da, orokorrean. Karteltzat hartzen diren informazio-trukeak, 101. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoak urratzeaz gain, nekez betetzen dituzte artikuluko 3. apartatuko baldintzak.

Horregatik, fabrikatzaile batek edo gehiagok enpresaren webgunean produktu bakoitzaren handizkako salmenta-prezioak argitaratuz gero, lehia-agintaritzek jardun hori ikertu beharko lukete, eta hasiera batean, lehiakideen arteko informazio sentikorraren truketzat hartu beharko lukete, xedea beraien arteko jarduketak bateratzea izanik. Beraz, jardun hori karteltzat hartuko litzateke, Europako Batzordearen jakinarazpenarekin bat eginez.

Informazio-truke horiek, hala ere, lehiaren aldekoak izan ahalko lirateke, zenbait inguruabar betez gero. Beste gauza batzuen artean, honako hauek baloratu behar dira: merkatuaren egitura (lehiakorrak edo oso kontzentratuak badira), trukatuak informazioaren ezaugarriak (antzinakotasuna, maiztasuna, gehitze-maila), elaborazio-metodologia (merkatuko estatistikak), informazioa aurkezteko modua (nola helarazten den) eta informazioa nork aurkezten duen (agintaritza publikoak, organo independentea).¹⁰

⁹ [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52011XC0114\(04\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52011XC0114(04)&from=ES)

¹⁰ Horri dagokionez, ikus Andaluziako Lehia Defendatzeko Batzordearen Eraikuntzaren Kodifikazio eta Prezio Maltzoaren Fundazioari buruzko 02/2009 S ebazpena.



2. Sektore Publikoko Kontratuen Legea

18. Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Kontratuen Legean xedatuta dago **lizitazioko oinarrizko aurrekontua** bat etorri behar dela merkatuko prezioekin (SPKLren 100.2. artikulua). Horretarako, araubidearen arabera, lizitazioko oinarrizko aurrekontua banakatzean, zuzeneko eta zeharkako gastuak adierazi behar dira, eta horiek zehazteko kalkulaturako bestelako balizko gastuak ere bai. Kontratua betearazteko kontratatutako pertsonen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta badago, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan banakatuta adierazi behar dira erreferentziako lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsitako ordainsari-kostuak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera bereizita.

Era berean, SPKLren 101.7. artikuluan xedatzen denaren arabera, **kontratuen balioaren estimazioa** egiteko, kontuan hartu behar dira merkatuko ohiko prezioak. Horrez gain, SPKLren 102.3. artikulua derrigortasun hau xedatzen du: kontratazio-organoek, kontratua benetan bete dadin, prezioa egokia izatea zainduko dute, zenbatekoaren balioespen egokia eginez. Horretarako, lizitazio-aurrekontua finkatzerakoan, merkatu-prezio orokorra hartuko dute kontuan, eta, hala badagokio, balio anormal edo neurrigabeko eskaintzei buruzko arauak aplikatuko dituzte.

19. Azaldutakoaren arabera, prezioen tresna bat egotea erabilgarria da —prezio horiek egokitasunez kalkulaturaz gero eta modu iraunkorrean eguneraturaz gero—, bai adjudikatzailentzat, kontratuen balioa zuzentasunez kalkulatzeko, bai lizitatzailen posibilitateentzat, eskaintzak prestatzeko.

III. EUSKO JAURLARITZAREN ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA LANETARAKO SALNEURRIEN DATU-BASEA

20. Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-basea ez da prezioen behatoki bat; izan ere, ez die erreferentziarik egiten txikizkako merkataritzako ondasunen salmenta-prezioei, ezta azken erabiltzaileei zuzendutako zerbitzuei ere, eta, gainera, datu-basea ezin dute herritarrek modu librean erabili, bakarrik eraikuntza- eta hirigintza-sektoreetako profesionalak erabili baitezakete, aurretiaz derrigorrean erregistratu behar direla.

Ez du loturarik enpresa-elkarteen prezio gomendioekin edo elkargo profesionalen baremo orientatzaileekin; izan ere, administrazio publiko batek sortu zuen eta mantentzen duen datu-basea da, eta, beraz, ez da kidetuen, afiliatuen edo elkargokideen kolektiboetako kideentzat.

Bukatzeko, datu-basea sortu eta mantentzen duen administrazio publikoaren izaera kontuan hartuz, ez da lehiakideen arteko informazio sentikorra edo estrategikoaren trukerik egon.



- 21.** Kontsultatu ditugun 18 enpresa edo enpresa-elkarteetatik hamarrek, hau da, % 55ek, adierazi dute sekula ez dutela erabili datu-basea, hauek hain zuzen ere:
- ERAGILE 1, ERAGILE 3, ERAGILE 6, ERAGILE 7, ERAGILE 8, ERAGILE 9, ERAGILE 11, ERAGILE 12, ERAGILE 13 eta ERAGILE 15
- 22.** Datu-basea ohiko moduan edo noizbehinka erabiltzen duten enpresa eta enpresa-elkarteak 8 dira (% 45), eta beste bi enpresek, LEA/AVC-k kontsulta egin ondoren ikusi dute, hau da, ERAGILE 7 eta ERAGILE 8 enpresek, eta horietatik lauk (% 22k) bakarrik uste du datu-basean dauden prezioak egokiak direla, hauek:
- ERAGILE 2, ERAGILE 4, ERAGILE 8 eta ERAGILE 14
- 23.** Azpimarratu behar da, ERAGILE 8 enpresak bakarrik hondakinen kudeaketako prezioak berrikusi dituela, eta horiek, IHOBEren teknikariak esan moduan, bi urtean behin eguneratzen direla.
- 24.** Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, datu-basearen azken eguneratzea 2015. urtean egin zuten (eta azkenurrena, 2011n). IHOBEren teknikariaren arabera, bi urtean behin eguneratzen dituzte prezioak. Baieztapen biak ez datoz bat.

IV. ONDORIOAK

LEHENENGOA: Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-base bat egotea erabilgarria da, prezioak zuzen kalkulatuta eta egunean badaude. Modu horretan, agintari adjudikatzailleek zuzentasunez beteko dute kontratuen balioa kalkulatzeko legezko betebeharra, merkatuko prezioak kontuan hartuz kalkulu horiek egiten dituztenean, hain zuzen ere. Era berean, lizitatzaille posibleek, eskaintzak prestatzerakoan, tresna bat erabili ahal izango dute, zeina ezin den bakarra eta nahitaezkoa izan.

BIGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza eta Hirigintza Lanetarako Salneurrien Datu-basea ez da inolaz ere erabilgarria erabiltzaile erreal edo balizkoen iritzian; izan ere, LEA/AVC-k egindako inkestaren erantzunen arabera, prezioak ez daude batere eguneratuta.

HIRUGARRENA: Badirudi bakarrik hondakinen kudeaketari buruzko kapituluak betetzen dituela prezioak errealitatearekin bat etortzearen betekizuna —horrelako tresnek bete beharrekoa—, IHOBEk eta enpresa batek azaldutakoaren arabera (enpresa horrek ez du datu-basea erabili inoiz, baina kapitulu horretako prezioak aztertu zituen).



LAUGARRENA: Datu-basean jasotako prezioak merkatuko prezio errealekin bat ez baldin badatoz, ez da posible agintaritza adjudikatzailleek kontratuen balioa zuzentasunez kalkulatzea, eta, beraz, zeharkako moduan, aurkeztutako eskaintza kopurua murrizten ariko litzateke, kontratua zuzen baloratuz gero egon litezkeen eskaintzak gehiago lirateke eta.

BOSGARRENA: Eusko Jaurlaritzak tresna horren inguruan hausnartu beharko luke, ez baitirudi ezarritako helburuak betetzen dituenik, kontsulatutako erabiltzaileek esandakoen arabera, eta ondorioztatuko balu datu-basea ezinbestekoa dela, balorazio-irizpideak eta kontzeptu guztiak eguneratu beharko lituzke.